

<p style="text-align: center;"><b>IKASGAIAREN izena</b> 1.6. Komunikazioaren oinarriak</p>	<p style="text-align: center;"><b>Kreditoak</b> 6 ECTS. <b>OINARRIZKO HEZKUNTZA</b></p>
<p><b>Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan</b> Lehen MAILA eta lehen SEIHILEKOA</p>	
<p><b>Ikasleak ikasgai honekin eskuratzen dituen gaitasunak eta emaitzak</b> <b>Gaitasun orokorrak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <b>Enprendizajea eta berrikuntza</b> Begirada eta jarrera sortzailea garatu errealitatearen aurrean, eta inizatiba eta espiritu ekintzailea bultzatu, egoera eta eszenategi berrietara egokitzen saiatu, beste pertsona batzuekin batera lan egiten jakin, pertsona horiek helburu komun bat lortzera zuzendutako dinamika batean inplikatzeko eta gidatzen jakin, egin beharreko lanaren eta lan horrek dituen ezaugarrien (kalitatea, epeak, eta abar) ikuspegi orokorra eskaini, eta norberaren eta taldearen interesak orekatu.</li> <li>○ <b>Talde-lana</b> Helburu komunak lortzera bideratutako lanetan beste batzuekin batera aritu, ekintzak modu koordinatuan planifikatuz, informazioa trukatzuz, erantzukizunak nor bere gain hartuz, eta gertatzen diren gatazka eta arazoak aurre eginez.</li> <li>○ <b>Ikasten ikasi</b> Aurretiaz eskuratutako ezagutzak eta estrategiak aplikatu, ikaskuntza berriak sortzeko, prozedura eta testuinguru egokienez hausnartzuz, sortzen diren egoera guztietan ezagutza eskuratu, garatu, eta beste egoera batzuetara transferitzeko.</li> <li>○ <b>Espiritu kritikoa eta konpromiso etikoa</b> Errealitatea eta bertan gertatzen diren gertaerak irakurtzen eta interpretatzen jakin ikuspegi kritikoa eta autokritikoa batetik, beraren konplexutasunak eta bertan parte hartzen duten faktore guztiak kontuan hartuz, estereotipoak eta kliseak aztertuz, bereiziz eta gaindituz; eta errealitatearen ikuspegi etikoa garatu, aniztasunaren aurrean sentiberatasun berezia garatuz, gizarte harremanak hobetzeko konpromisoa helburua hartuta.</li> </ul> <p><b>-Ezagupenak:</b></p> <p><b>1.1. Argazkigintza, zinema, irrati eta telebistaren historia eta bilakaera, batetik, eta ikus-entzunezko bitarteko horiek denboran zehar izan duten garrantzi sozial eta kulturala, bestetik, beraien proposamen estetiko eta industrialen bitartez ezagutzea.</b> Aldi berean, teknologiaren eta industriaren bilakaera ikus-entzunezko hizkuntzarekin lotzea, eta kontuan hartzea bai ikus-entzunezko emanaldien kontzeptu teoriko-praktikoak, bai kontzeptuen komunikazio-sistemak, transmisio-sistemak eta haien errealitateak, bai eta irudiaren (hitzaren zentzu osoan) zeinu edo kodigoen interpretazio eta azterketa zuzena erraz dezaketen balio sinboliko eta kultural oinarritzakoak ere.</p> <p><b>1.5. Praktika profesionalari zein komunikatzailearen lanari eragiten dieten etikaren eta deontologia profesionalaren ezagutza, bai eta informazioaren antolamendu juridikoarena ere.</b></p> <p><b>-Trebetasunak:</b></p> <p><b>2.10. Eskuratutako informazioa aztertzeke, interpretatzeke, berregituratzeke eta adierazteke gaitasuna</b> hizkuntzaren egokitasuna eta zuzentasuna bermatuz hiru hizkuntzetan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez), eta beti ere komunikazio-egoera aintzat hartuz, hizkuntzalaritza testual eta diskurtsiboaren irizpide orokorren arabera.</p> <p><b>2.12. Ikus-entzunezko kontakizunak aztertzeke gaitasuna,</b> ikus-entzunezko obren azterketaren oinarritzako parametroak aintzat hartuz, eta ikono bidezko mezuek garai historiko jakin bateko baldintza soziopolitiko eta kulturalen testutzat eta produktutzat hartuz.</p> <p><b>2.13. Gizartearen bilakaera historikoa, soziologikoa, ekonomikoa eta kulturala interpretatzeke gaitasuna.</b></p>	
<p><b>Ikasgaiaren ekarpena profil profesionalari</b> Edozein euskarri motako etorkizuneko informazio-erredaktore gisa, ikasleak informazio orokorra eskuratzeko eta kudeatzeko oinarritzako ezagutzak eta gaitasunak garatuko ditu. Era</p>	

berean, ikasleek ezagutzak, prozedurak, estrategiak eta trebetasunak eskuratuko dituzte informazioa eskuratu, ebaluatu eta modu etikoak komunikatzeko eta errealitatea eta bertan gertatzen diren gertaerak ikuspegi kritiko eta autokritiko batetik irakurtzen eta interpretatzen jakiteko.

Ikasgai honekin eskuratutako ezagutzak funtsezkoak izango dira ikasleek burutu ahal izan dezaten bai komunikazio eta diseinu proiektua, prentsa idatzian, bai komunikazio digitaleko proiektua. Bi proiektu horien bitartez praktikan jarriko dira ikasgaiaren eduki teorikoak.

**Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta beronek ikasleak eskuratu beharreko gaitasunekin duen harremana.**

- ✓ Irakaskuntza-ikaskuntza metodologiak ikaslearengan jartzen du arreta osoa, tailerren bidez, eskola praktikoen bidez, eta banakako zein taldekako lanen bidez.

**Prestakuntza jarduerak**

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Eskola magistralak eta teorikoak.
- ✓ Praktika onen kasuen azterketa.
- ✓ Mintegiak.
- ✓ Tutoretzak.
- ✓ Ebaluazioa.

Jarduera ez presentzialak (%60):

- ✓ Ikasketa eta lan autonomoa: irakurketak eta idazlanak.
- ✓ Taldekako ikasketa eta lan autonomoa: irakurketak eta kasuen azterketak.

**Gaitasunak eskuratzeko ebaluazio-sistema**

- ✓ Kasuen azterketaren jarraipena: %20.
- ✓ Proba teorikoa: %30.
- ✓ Idazlanak: %20.
- ✓ Asistentzia: %20.
- ✓ Autoebaluazioa: banakakoa (%5) eta taldekakoa (%5).  
Ikasgaia gainditzeko, ebaluazioaren atal bakoitza gainditu behar da.

**Edukien laburpena**

- Komunikazio eta informazio prozesuak.
- Komunikazio soziala eta beronen ondorioak.
- Komunikazioaren teoriak.
- Masen komunikazioa eta kultura.
- Edukiak eta diskurtso mediatikoa.
- Informazioa eta desinformazioa gizarte komunikazioaren prozesuan.
- Kazetaritzaren funtzio sozialak.
- Entzuleak. Ondorioak.